

Arratsaldeon, eta ondo etorriak guzti-guztiok.

Labayru Ikastegia *bide barrietan* abiatzera doa. Labayru Fundazioa izango da bere izena hemendik aurrera. Berez fundazioa da Labayru hasiera-hasieratik, 1977. urtean Bilboko Eleizbarrutiaren babespean eregi zanetik.

Sorrerako helburu bereberei erantzuteko barriztetan da Labayru: “euskal kulturaren balioei, euren alderdi guztietan, irauten, aurrera egiten eta gaurkotzen laguntzeko ekintzak eta lanbideak sortu”, araudian esaten dan lez.

Gure Eleizbarrutiko kideak ziran, mila bederatzirehun eta hirurogeta hamarreen hasita, helduentzako euskerazko eskolak eratzen eta emoten hasi ziranak: Karmelo Etxenagusia, gero gotzain laguntzaile izango zana, Mikel Zarate abadea eta Ander Manterola, urte luzeetan zuzendari izan dana.

Herri-jakintza, etnografia, eta Euskal Biblioteka izan dira hasieratik bultzatu ziran beste egitasmo nagusiak.

Bizkaiko Eleizearen barruan sortu ziran ekintza horreek lege-babesa eskatzen eben, eta 1977an etorri zan babes hori. Orduantxe eregi zan Eleizbarrutiko Fundazioa, Labayru historiagilearen izenaz, Antonio Añoveros gotzain eta Juan Maria Uriarte gotzain laguntzaile zirala.

La iniciativa de crear una fundación diocesana entraba de lleno en la misión de la Iglesia, cuyo referente es el Concilio Vaticano II. Los estatutos de la Fundación Labayru recogieron ese mandato de “promover obras y servicios a favor del desarrollo y actualización de los valores culturales del Pueblo Vasco”.

La primera y la más señera dedicación de Labayru fueron la lengua y literatura vascas. Más tarde fue ampliando su campo de actuación a la traducción, la etnografía, y como complemento de su dedicación dispone de un importante fondo bibliográfico vasco. Una de las sedes de la Fundación, precisamente la que acoge la biblioteca y el fondo documental se ubica en el antiguo Seminario de Derio.

Une honetan arnasa barriz berrindartu gura dau Labayruk, egin barri dan Plan Estrategikoa oinarritzat hartuta. Jente gazteagoak hartuko dau egitasmo barriak bideratzeko txanda.

Nire azken mezua hau da: Eleizbarrutiak eta Gotzain nazan honek begi onez ikusten ditugu Labayruren *Bide Barriak* eta horretan izango dozue gure babesa eta laguntza.

Eskerrik asko

Mario Iceta
Bilboko Eleizbarrutiko Gotzaina